



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2010-04-29**

VIII. URTEA 1.987. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Ezker Abertzaleak Udalaren erantzuna «kezkagarria» dela dio

TOLOSA Ohiko Osoko Bilkuran hautetsi independentistek 'Voith-Gorostidi auzia' jarri zuten mahai gainean

BAIEZTAPENA Alkateak proiektua defendatu zuen berriz ere, eta egun «horrelako plangintza gutxi» daudela esan zuten



Jon Ander Torrea, Jokin Bildarratz, Iñaki Amenabar eta Periko Peñagarikano atzoko aurkezpenean. I. TERRADILLOS

AZAROAN HASIKO DIRA LEHIBERRIEN EGOITZA ERAIKITZEN

TOLOSA Tolosaldeko Lehiakortasuna eta Berrikuntzarako Foroaren eraikina Apatta Errekan egongo da; 3,6 milioi euroko aurrekontua du z

Azken 75 urteetako mendi jarduera argazkietan

VILLABONA 'Amasa-Villabonatik mundura' izeneko liburua eta dvd-a aurkeztu zituzten Aizkardi Mendi Elkartearen lokal berrian 5



Mendi elkartearen lokal berrian egin zuten lanaren aurkezpena. E. MAIZ

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leizua

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Lehiakortasuna eta Berrikuntzarako Zentroa azaroan hasiko dira eraikitzen

Ekonomia » 12 hilabete iraungo dute lanek; eskualdeko enpresen erreferentzia gune izatea du helburu.

INIGO TERRADILLOS

Lehiberrik Tolosaldeko Lehiakortasuna eta Berrikuntzarako Foroak laster izango du egoitza. Apatta Erreka industrigunean kokatuko dute, eta azaroan hasiko dira eraikitzen. Proiektuak 3,6 milioi euroko aurrekontua du, eta lehen fasea 2011 urteko azaroan amaitzea espero dute. Zentroa «eskualdeko enpresen erreferentzia gune izatea» da helburua, «bailararako nahiz Gipuzkoarako oso garrantzitsua izango delarik».

Tolosaldea Garatzenek apirilaren 19an egin zuen Batzar Orokorrean onartu zuen Tolosaldeko Lehiakortasuna eta Berrikuntzarako Zentro berria eraikitzeko aurreproiektua. Eskualdeko enpresa sarearen lehiakortasunaren alde elkarlanean ari diren eragile publiko eta pribatuak batzen dituen Lehiberri Foroak, beraz, egoitza izango du hilabete batzuren buruan, eta, era berean, Kudeaketa Planean dauden ekintzak burutzeko instalazioak izango ditu.

Atzo eginiko aurkezpenean azaldu zuten bezala, «ez da zentro teknologiko bat izango, baizik eta Tolosaldeko egitura produktiboa-



Itziarri Amenabar Asteasuako alkatea eta Lehiberriko kidea, Jon Ander Torrea Lehiberriko lehendakaria, Jokin Bildarratz Tolosaldeko alkatea eta Lehiberriko lehendakariordea eta Periko Peñagarikano Anoetako alkatea eta Lehiberriko kidea. I.T.

ren eta jada existitzen diren zentro teknologikoen arteko zubi lana egingo du, eta agente ezberdinen artean burutzen diren arlo guztietako proiektuak burutzeko gune» izango da.

Eskualderako «ezinbestekoa»

Bestalde, Lehiberrik eta bestelako erakundeek enpresen garapenerako bideratutako ekimenen euskarri izateaz gain, hauetarako ere lekua izango du zentroak: enpresa eta lanbide eskolen arteko proiektuak, enpresentzako informazioa eta sentsibilizazio ekintzak, eta ekintzailetasuna eta barne-ekintzailetasuna sustatzeko moduko instalakuntzak. Modu honetan, «eskualdeko lanbide eskola eta enpresen arteko lankidetzaz bultzatuko da eta ezagutzaren zabalkunde edota puntako kudeaketan formazioa ahalbidetuko dira».

Jon Ander Torrea Lehiberriko lehendakariaren ustez, zentroa «ezinbestekoa» izango da eskualdeko ekonomiarentzat, «formakuntza eta lehiakortasuna beharrezkoak direlako gaur egun, eta horiek landuko direlako».

Jokin Bildarratzek, bere aldetik, Gipuzkoan gisa honetako lehen proiektua izango dela nabarmendu zuen atzoko aurkezpenean. Halaber, eskualdeko 28 herriek proiektuan izan duten «parte-hartzea» azpimarratu zuen.

2011ko azaroan martxan

Egoitzak ia 3.000 m² izango ditu hiru solairutan banatuta, eta ondorengo guzuek izango dute lekua: enpresen hazitegi eta haztegia; enpresen arteko proiektuentzako laborategiak; eskualdeko behatoki sozioekonomikoa; enpresen kongresu eta jardunaldietarako azpie-

gitura; kudeaketaren formazioarako gelak; eta Tolosaldea Garatzenen bulegoak.

Hain zuzen ere, azaroan aurreikusten dute hasiko direla obrek, eta 12 hilabeteko epean zentroaren lehen zatia amaituta egotea espero dute. Egoitza Apatta Erreka industrigunean eraikiko dute, bertako bigarren fasean. Aldundiarekin berriki onartu duten hitzarmenari esker handitu egingo dute eremua, eta zonalde berria kokatuko dute egoitza. Lehen zatiaren aurrekontua 1.600.000 eurokoa da, eta gehiena, hau da, milioi bat Madrilgo Gobernuak jarriko du.

Bigarren zatia eraiki ahal izateko finantziario lortzeko prozesuan daude orain. Dena den, eraikinaren lehen zatia amaituta bertan jardutea posible izango da, guztia amaitzera itxaron beharrik gabe.

» LEHIBERRIEN EGOITZA BERRIAREN INGURUKO DATUAK

Datu orokorrak

- **Proiektua.** Lehiakortasuna eta Berrikuntzarako Zentroa.
- **Obrak.** 2010 urteko azaroan hasi eta 2011 urteko azaroan amaitzea aurreikusi dute lehenengo zatia.
- **Eraikina.** Lehen zatiak 1.660 m² izango ditu, eta bigarrenak 1.204 m². Apatta Erreka industrigunearen bigarren fasean lekutuko dute.
- **Aurrekontua.** 3,6 milioi euro. Lehenengo zatiarena 1,6 milioi eurokoa da. Milioi bat Espainiako Gobernuak jarriko du, 400.000 euro eskualdeko udaletxeek eta gaine-

rako 200.000 euroko udaletxeek jarritako lurrekin. Bigarren zatirako finantziarioa zehaztu gabe dago.

- **Proiektuaren helburua.** Eskualdeko enpresen eta enpresariaren erreferentzia gune izatea. Enpresen inguruko formazioa eman, enpresen hazitegi izan edota proiektuak landuko ditu, besteak beste.

Zentroaren guneak

- **Enpresen hazitegi eta haztegia.** Kutsu berritzaile handiko proiektuak haztea da asmoa. Beharrezko ekipamenduekin hornituko dira,

ekintzailearen jatorrizko ideia berrietako proiektu enpresariak bihurtu dadin.

- **Enpresen arteko proiektuentzako laborategiak.** Hiru gune izango ditu enpresen arteko elkarlanetik sortutako proiektuen diseinurako eta prototipoak eraikitzeko.

- **Eskualdeko behatoki sozioekonomikoa.** Zaintza lanak egingo ditu, dauden beharrak eta aktibitate eremu berriak identifikatzeko, eta ahalik eta eraginikortasun handiekin eragiteko informazioa lortzeko.

- **Enpresen kongresu eta jardunaldietarako azpiegitura.** 100 pertsona ingururentzako areto bat eta erakustareto bat izango ditu.

- **Kudeaketaren formazioarako gelak.** Kudeaketa hobetzeko helburuarekin zerikusia duten formazio saioak garatzeko gelak edukiko ditu.

- **Tolosaldea Garatzenen bulegoak.** Zentro berria kudeatzeko asmoz, «beti ere lan-taldeak bikoiztu gabe», Tolosaldea Garatzeneko bulegoak ere Apatta Erreka zentroan kokatuko dira.

BARNETEGI TEKNOLOGIKO BERRIA EGINGO DUTE

Tolosaldea Garatzen eta Sprik antolatutako Bidegoiango Barnetegi Teknologikoak izan zuen «arrakasta» kontuan hartuta, eskualdeko garapen agentziak barnetegi teknologiko berri bat antolatzea erabaki du. Urrretxuko Santa Kutz hotelean izango da maiatzaren 4an 15:30ean hasita eta Sean 14:00etan. 12 laguntzako lekua izango da, eta lehen tasuna izango dute Tolosaldeko enpresek. 100 euro ordaindu beharko da pertsona bakoitzeko (Tolosaldeko enpresentzat 50 euro, Lehiberrik %50 finantzen du), eta prezioan ostata, afaria eta gosaria sartuko da.

Barnetegi Teknologikoa edozein jardueraren sektorekotako enpresa txiki eta ertainetako kudeatzaileei edo zuzendaritza-karguei zuzenduta dago. 24 orduko egonaldi honen helburua da jakitea enpresek berehala hasi behar dutela urratsak ematen bide berri honetan, teknologia nola aprobetxatzen ari diren jakiteko eta nondik norajoa behar duten erabakitzeko. Bereziki pentsatua dago IKTen balioa zein den transmititzeko.

Laburrak

Udalbiltzaren aurkako operazioaren urteurrena

POLITIKA » Gaur duela zazpi urte Udalbiltzaren kontrako polizia operazioa egin zuten, Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak aginduta. Guztira hamabi lagun atxilotu zituzten, Udalbiltzaren egoitza guztiak miatu eta itxi zituen Espainiako Poliziak. Bada, hori guztia salatzeko alde elkarretaratzera deitu dute, gaur, 20:00etan, Tolosaldeko Plaza Zaharrean eta Zizurkilgo herriko plazan.

Mendi irteera maiatzaren 7, 8 eta 9an, Oargirekin

TOLOSA » Oargi Mendi Elkarteak irteera antolatu du maiatzaren 7, 8 eta 9rako. Zuberora joango dira eta han bi mendi igoko dituzte, Lakora eta Izarbe. Ostiralean Tolosaldeko irteera Logibar-eko aterpean egingo dute. Larunbatean Lakora mendira igoko dira, Santa Engrazi herrietik. 1.000 metrotik gorako batez besteko maldadago eta 4 ordu inguruko igoera. Ehujarreko arroletik hasiko dira igotzen eta ondoren eskubiko arroila hartuko dute, Erusokoa. Bertatik Lakoraren azpian azalduko dira, segituan gora iristeko. Jeisteko Heileko tontorra egingo dute, ondoren Heileko zirkotik pasatzen, hau glaziarrek sortutako zirkot bat da. Logiterra berriro ere Logibar-eko aterpera itzuliko dira. Igandean Izarbe mendira igoko dute Ligiko herrietik. 1.000 metrotik gorako batez besteko maldadago eta lau ordu inguruko igoera.

Independentziaren gerrari buruzko hitzaldia, gaur

TOLOSA » Kutzaren Gizarte Ekintzak antolatuta, *Independentziaren gerra. Alava generalaren ikuspegitik* hitzaldia izango da gaur, Kultur Etxean, 19:30ean. Nazaret zentroaren laguntzarekin emango dute hitzaldia, eta sarrera librea izango da, hau da, edonork parte hartu ahaliko du. Generalaren oinordeko den Gonzalo Serratek emango du hitzaldia.

Sendabellarren inguruko ikastaroa Ikastn-en eskutik

TOLOSA » Tolosaldean Ikastn zerbitzuak sendabellarren inguruko ikastaroa antolatu du maiatza eta ekainetarako. Hain zuzen ere, maiatzaren 12, 19, 26 eta ekainaren 2an izango da, 18:00etatik 20:00etara. Guztira, 8 orduko iraupena izango du, eta 50 euro ordaindu beharko dira parte hartzeko. Izena emateko edota edozein zalantzetarako 943 65 11 47 edo 615 77 56 78 zenbakietara hots egin ahaliko da, info@ikastn.com-era idatzi edo www.ikastn.com webgurean sartu. Ikastaroa Itziarri Salegik emango du, eta ez da beharrezko gaia inguruko ezagutza izatea.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ezker Abertzaleak «epaia eta legea betetzeko» eskatu dio alkateari

'Voith-Gorostidi auzia'

Hektor Espinen esanetan eremuak une honetan ez dauka antolamendu xehaturik.

ASIER IMAZ

Udalbatzaren azken Ohiko Osoko Bilkuran, herenegun iluntzean, Voith-Gorostidi auzia jarri zuen mahai gainean Tolosako Ezker Abertzaleak. Eremu honetan etxebizitza edukiko duten bizilagun batzuk udaletxeko aretoan aurkitzen ziren eta bizi duten egoera ulertzea zaila denez, Ezker Abertzalearekin eta Udalarekin elkartzeko asmoa ere azaldu zuten.

Auzitegiaren epaia

Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiak martxoaren 31n bertan behera utzi zituen Voith-Gorostidiren inguruko 2007ko arau aldaketak.

Iragan astean, Tolosako Ezker Abertzaleak eta Udalak epaiaren inguruan euren iritziak plazaratu zituzten. Jokin Bildarratzek alkateak eta Jokin Azkue Hirigintza zinegotziak azaldu zuten, Udalak 2009an onartu zuen Plan Orokorra aurreko arau aldaketak indarrik gabe uzten zituen.

Hektor Espinek, Ezker Abertzaleko kideak, herenegun azaldu zuenez: «Jokin Bildarratzek eta Jokin Azkuek epaiari emandako erantzuna oso kezagarria da. Gaiaren mamiari guztiz ihes egin dielako».

Bi udal langile baztertu izana ere leporatu zien Espinek Bildarratzek eta Azkuei. «Jokin Bildarratzek eta Jokin Azkuek hirigintza oso gutxi dakite. Ez dugu modu irain-



Antton Izagirre eta Hektor Espin, Ezker Abertzaleko kideak, Bilkuran. A. IMAZ

garrian esaten, konstatazio bat besterik ez da. Normala da. Hain gaizki aholkaturik egotea ordea, ez da hain normala. Eta hau euren errua da. Udaletxe honek oso aholkulari onak zituen. Eta aholkulari horiek behin eta berriz ohartarazi zuten Voith-Gorostidiren egiten ari zirenetan akats guttziez. Zuek aholkulari horiei entzun beharrean, haiek egindako txostenak gustuko ez eta baztertu egin zenituzten. Eta azkenean udaletxetik kanporatu».

Irakurketa tekniko

Ezker Abertzaleko kidearen ustez, 2007ko arau aldaketan «txapuzaren jakitun, Plan Orokorrearekin konpondu nahi izan dute».

«Gaiaren mami» honela azaldu zuen lanbidez arkitektoa den Hektor Espinek: «Sistema Orokorra Voith-eko eremutik atera eta era horretan planaren eraikigarritasuna txikitu, hori da egin duzue-

na. Edo beste modu batera: dena etxetz bete dutenez, eta Voith-eko etxebizitzetaz legez dagozkien berdeguneak bertan sartzen ez direnez, herriko beste puntara eraman dituzte berdeguneak. Eta gainera, berdegune horiek etxeak egin dituenak edo promotoreak aportatu beharrean, Udalak oparitu egin dizkio. Hori legezkoa den edo ez epaitegiak erabakiko du. Edozein kasutan, hori Voith-eko bizilagunei iruzur egitea da, eta Tolosako herriari lapurretak».

Behin hori azalduta, 2009ko Plan Orokorra aztertu zuen Espinek ikuspuntu tekniko batetik. Hain zuzen, antolamendu xehatuaren inguruan hitz egin zuen. Antolamendu xehatuak eraikinak nolakoak diren, non kokatuak joango diren, hauen altuera zein izango den, hauen arteko kaleak nolakoak izango diren eta abar luze bat zehazten du. Eta Ezker Abertzaleko kidearen esanetan,

Voith-Gorostidi eremuari antolamendu xehatua falta zaio. Marko legal hau gabe beraz, «ezin da eraiki».

Hektor Espinen hitzetan, «Udalak onartu zuen 2009ko Plan Orokorra honela dio Gorostidi-Voith eremuaren antolamendu xehatuari dagokionez: 4. Antolamendu xehatua zehazteko erregimena. Plan Orokor honetan finkatzen eta barne hartzen den 2007ko urtarilaren 30eko erabaki bidez behin betiko onartutako Plangintza Arau Subsidiarioen Aldaketak ezartzen du '5.1 Gorostidi-Voith' azpi-esparruaren antolamendu xehatua».

Honek zer esan nahi duen ere azaldu zuen: «Gorostidi-Voith eremuko antolamendu xehatua Arau Subsidiarioen Aldaketak dela eta Epaitegiak aipatu Aldaketa balio gabetu duenez, une honetan, eremuak ez du antolamendu xehaturik. Udalak berariazko antolamendu xehatu berria idatzi eta onartu behar du, eta bitartean ezin da eraiki. Antolamendu xehatu berria, gainera, 2/2006 Legea, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa, delakoaren arabera idatzi behar da. Hala nola, 105/2008 Dekretua, premiazko neurriei buruzkoa, ere kontuan hartu behar du».

Irakurketa politikoa

Azkenik, Ezker Abertzalea Jokin Bildarratzek zuzendutako zitaioan: «Bila ezazu aholkularitza egokia eta ez zaitetz eraikuntza enpresen alde tematu. Utz ezazu albo batera buru gogorkeria eta harrokeria eta jar itzazu herria eta herritarrek zure interesen lehen tokian. Bestela, herritar asko eta Udala bera irutenbiderik gabeko bidetik eramango dituzu».

Alaba Kuttuna San Joan jaien berotasunean

GIZARTEA • Udaltzako aho batez onartu zuen proposamena herenegun: Edurne Pasaban Tolosako Alaba Kuttuna izendatzea. Udaltzako erabakietan mendizalearen ibilbidea txalotzeaz gain, Tolosaren izena munduan zehar zabaltzeko izana ere azpimarratu zuten. Esker oneko hitzen ondoren bozketa egin zuten eta alderdi guztiek proposamena babestu zuten. Jokin Bildarratzek alkateak jakinarazi zuenez, ekitaldia San Joanetan egitea aztertzen ari dira. Erabakia senideei eta Edurne Pasabani azaldu ondoren zehaztuko du data Tolosako Udalak. Mendizalea zortzi milako hamalaugarren tontorra izotzeko lanetan aurkitzen da une honetan, Shisha Pangaren magalean. A.I.

Horrekin batera, «Ezker Abertzaleak beti arduraz» jokatu duela aipatu zuen, «eta oraingoa ere» horrela egingo dutela aipatu zuen. «Jokin errekifikatu egin behar du eta berak sortu duen arazoa konpondu. Hori nola egin behar du? Epaia eta legea betez. Hori egin badu, Ezker Abertzalearen eskua zabalik aurkituko du. Bestela, sortuko den eszenarioa kaltegarria izango da jende askorentzat eta Ezker Abertzaleak ez du eszenario hori nahisi».

Jokin Bildarratzek erantzuna

Tolosako alkateak hartu zuen ondoren hitza, eskuzabaltasuna beti eskertzekoa dela esanaz. Hala eta guztiz ere, Ezker Abertzalea alkatearen prebikaritzen aritu zela esan ondoren eskuzabal agertzea, «zailantzarria» zela aipatu zuen.

Ondoren gestioaz hitz egin zuen, Antton Izagirre alkate egon zen garaia gogoratu. Garai hartako «gestio eza» eta euren agintaldiko «konparagarriak» direla aipatu zuen, orduan gauzak nola egin ziren eta orain nola aurkitzen diren aipatu. Horren adibide bezala, Voith-Gorostidi bera, Laskorain Goikoa eta Usabal aipatu zituzten, eta «proiektu garrantzitsu» hauekin egin duten lana azpimarratu zuen.

Hitz egiteko edo gaiaren inguruko edozein dokumentu ikusteko arazorik ez duela ere aipatu zuen Bildarratzek. Hori bai, proiektua goitik behera defendatu zuen beste behin ere: «Horrelako plangintza gutxi egongo dira gaur egun. Lantegi garrantzitsuak birkokatu dira; 700 etxebizitza eraikitzeko aukera dago eta horietatik %63 babesturik. 2009ko Plan Orokorra aurreko aldaketak «indargabe» uzten dituela ere berretsi zuen. Ondoren, Jokin Bildarratzek Bilkuran idazkari lanetan zegoen Jose Luis Unanueri galdegin zion. Honek horrela azaldu zuen: «Hasiera batean behintzat horrela ematen du, Plan Orokorra egiten ari dena konbaldatzen duela. Adituak daude, ni baino adituagoak ziurrenik, eta ikusiko da. Baina hasiera batean dirudinez hor eginen ari dena Plan Orokorra babesturik dauka».

Bilkuran zeuden gainontzeko alderdi politikoetako ordezkariak ez zuten ezer esan auziaren inguruan.

Iragarki laburrak

LANESKAITZA

■ **Mutil gaztea.** Mutil euskalduna behar da lanerako. 25-30 urte bitartekoa. Deitu 13:00etatik 15:00etara ondorengo telefono zenbakira: 649 51 09 41.

AURKUTUTAKOA

■ **Ibarran.** Perikitoa edo loritua aurkitu dute Ibarran. Buru lananja dauka, gorputza berriz berde-urdira. Deitu: 609 47 30 81.



Oriamendi enpresa berriaren lehen partida, gaur

Erremontea » Lehen jaialdia gaur bertan izango da 16:00etatik aurrera; Elduaingo Zeberio II.a bertan egongo da.

ERREDAKZIOA

Oriamendi erremonteko enpresa berriak gaur bertan hasiko du bere ibilbidea Nafarroako Euskal Jai Berri frontoian.

Izan ere, Hernaniko Galarreta frontoia berriz ere irekitzen duten bitartean aipatu pilotalekuan izango dira ostegun eta larunbatetako partidak. Hernaniko frontoia ekainan bukaeran irekiko dute berriete lanak bukatzen dituztenean. Jaialdi guztiak 16:00etatik aurrera

izango dira eta lau partidez osatuta egongo dira.

Enpresaren jardueraren inaurguraziorako 2010eko I. Oriamendi Irekiera Torneoa prestatu dute. Txapelketa azkarra izango da, bi finalaurreko bakarrik izango direlarik. Finalaurrekoak gaur izango dira eta finala etzi, maiatzak 1.

Egun erremontean hobekien dabilzan pilotariak izango dira: Ezkurra-Etxeberria III.a Uterga-Urrutia Laren kontra (lehen finalaurrekoa) eta Elduaingo Zeberio II.a- Lizaso Urriza-San Miguelen aurka (bigarren finalaurrekoa).

Ibilbide berria

Oriamendik argitaratutakoaren arabera, hainbat berrikuntza egingo dituzte. Apustuen artesaria

%16tik %10era jaitsiko dute, lehen txanpa honetan Uharteko Euskal Jai Berriko artekariak Euskal eta Galarretako berak izango direlarik.

Era berean, jaialdiak ikusteko sarrera 5 eurokoa izango da 25 urtetik beherakoentzat, eta 15 euro-takoa gainontzekoentzat. Bata edo bestea eskuratu, sarrerarekin batera edari bat lortu ahal izango da frontoian.

Oriamendiren asmoa erremonteari bultzada ematea da eta horretarako eskaintza desberdinak egingo dituzte.

Esaterako apustu baxuagoak egin ahal izango dira, 10 eurokoak ere onartuko dituztelarik, eta ki-nielen bidez jokatzeko aukera ere eskainiko dute.



Gela pilotua bere bainugelarekin. A. IMAZ

Adinekoen zentroaren gela pilotua prest

ERREDAKZIOA

Alondegia Tolosa adinekoentzako asistentzia zentroak 21 metro karratuko gela pilotua prestatu du. Erabat hormituta dagoela diote arduradunek, «altzari modernoak ditu, bai ikuspuntu funtzionaletik, bai diseinu aldetik». Altzarien artean ohea nabarmendu dute, izan ere, «erabiltzen oso erraza den sis-

tema bat dauka igotzeko eta altxatzeko, lagungarria oso adineko erabiltzaileentzat». Gelaren barruan egokitutako bainugela dago. Horiiek horrela, gelen %50ak gela pilotuaren azalera bera izango dute. Era berean, Alondegia Tolosa zentroaren lanak «erritmo onean» doazela argitu dute, eta beraz, udaran bukatzea espero dute.



Oriamendi enpresaren jardura gaur bertan hasiko da, 16:00etatik aurrera egongo den jaialdiarekin. JOSEBA ZABALZA



harpidedun izateak badu saria

① Liburua

Imanol Murua Uriak idatzitako **Loiolako hegiak** liburuaren 2 ale



② Diskoa

Mikel Gaztelurrutiaren **The New Jazz Voices Ensemble** diskoaren 2 ale



③ Antzerkia

Ez Dok Hiru antzerki bikoteak eskainita **EUSKARAZETAMOL** antzezlanerako 2 sarrera pare

Maiatzak 21, ostirala
20:30etik aurrera
Tolosako Topic-en



④ Kontzertua

Alos Quarter laukoteak eskeiniko duen kontzerturako bi sarrera pare

Maiatzak 28, ostirala
20:30etik aurrera
Tolosako Topic-en



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

Aizkardi Mendi Elkarteak liburua eta dvd-a aurkeztu ditu

Villabona » 'Amasa-Villabonatik mundura' liburu eta dvd-an, mendizaletasunaren 75 urteko historia bildu dute.

ENERITZ MAIZ

Aizkardi Mendi Elkartearen egoitza berrian, *Amasa-Villabonatik mundura* liburu eta dvd-a aurkeztu zituzten herenegun iluntzean. Bertan izan ziren Aizkardiko kideak diren Egoitz Bengoetxea eta Arantza Sorondo. Azken hau liburua eta dvd-a egiten aritu da beste batzuekin batera. Eta Udala ordezkatzuz, Julito Iturbe zinegotzia izan zen.

Amasa-billabonatarren 75 urteko mendizaleatasunaren historia bildu dute bertan. 1934. urtetik hasi eta 2009. urtera bitarteko argazkiak eta bitxikeriak bildu dituzte. Guda zibilaren aurretik ere, hartua zuten mendian ibiltzeko ohitura. Hasieran oso inguruko mendierra eta gero zabaltzen joan zen nahiz eta, baliabideak eskasak izan. Emakumeek ere hasieratik jorratu zuten mendizaleatasuna.

Informazio asko Loatzo Mendi Elkarte eta Aizkardi Mendi Elkarte artxibategietatik atera dute, baina beste hainbat lagunen laguntza ere izan dute lan guztia

bildu eta jasotzeko: Ignacio Goñi (Loatzo Mendi Elkarte lehenengo Lehendakaria), Maria Luisa Ruiz, Enrike Ganboa, Gillermo Alustiza eta Migel Lasa. Lan hau burutzeko ezinbesteko informatzaileak izan dira.

Liburuaren eta dvd-aren egileak, Joxe Bixente Agirre, Jabier Azurmendi, Garazi Bengoetxea eta Arantza Sorondo izan dira.

Sei hamarkadatan banatua

Lehenengo lana, Loatzoko artxibategia aztertzea izan zen eta Loatzo noiz sortu zen jakitea. Aiurriren laguntzarekin, argazki zaharren aztarnei jarraituz, Loatzo Mendi Elkarte sortu aurretik ere, Centro Parrokial-ek antolatuta mendirako irteerak bazirela jakin zuten. Honela, 1934. urtetik hasi eta 2009. urtera arte, 75 urteko historia osatu dute. Arantza Sorondo egileetako batek hauxe argitu zuen: «Oinarritzko artxibategia da. Xumea baina oinarritzkoa. Artxibo moduko formatua eman nahi izan diogu. Gehiena, argazkiak dira baina bitxikeriak ere badira tartean. Era berean dvd formatua ere eman nahi izan diogu».

Liburuak, 140 orri ditu eta 234 argazki eta agiriz osatua dago. Bere barruan dvd-a darama eta bertan, liburuko ez parte, 200 argazki gehiago daude. Sei multzotan, ha-



Aurkezpenean, Iturbe, Sorondo eta Bengoetxea izan ziren. E. MAIZ

markadaka, banatu dute liburua: lehenengo hamarkada luzeena da, 1934-1960 urte artekoa; bigarrena 1961 eta 1970 urteko urteak hartzen ditu; hirugarrena 1971-1980 urte artekoa da; laugarren hamarkada 1981-1990 urteen artekoa; bosgarren hamarkada 1991-2000 urteak hartzen ditu; eta azkena eta seigarrenean 2001 eta 2009 urteak sartu dituzte.

Mendirako zaletasuna lagun eta familiarteko transmisio bidez ematen dela adierazi zuen Sorondok. Afizio hori urteetan indartzen joan da, eta gero eta urrutirago donez, *Amasa-Villabonatik mundura* izena jarri diote liburuari.

Inork erosi nahi izanez gero, 15 euroren truke salgai jarri dute herriko toki ezberdinetan: Aizkardi Elkarte, Amasako Iturri-Goxon, Villabonako Xaldu eta Xiker



Amasa-Villabonatik mundura liburu. Barnean, dvd-a darama. E. MAIZ

tabernetan eta Kazetarian.

Era berean, duela urtebete pasatik, Udalak utzita, Aizkardi Mendi Elkarte lokal berria du. Egokitze lanak ordea, boluntario askori es-

ker egin dituzte. Aurreko lokala oso txiki geratu zitzaion eta orain, elkarteko leku ederra prestatu dute. Bertaratuek lokala ikusteko aukera ere izan zuten.

Laburrak

Festetan umeen bazkaria antolatzeko bilera

ANOETA » Ekainaren 3an Umeen Eguna ospatuko dute eta horretarako bilera antolatu dute maiatzaren 4ean, 18:00etan udaletxean. Haur parkea, erraldoiak eta pailazoak izango dira, besteak beste. Iaz lehenengoz ume eta gaztetxo- en bazkaria antolatu zuten eta arrakasta izan zuen. Era berean, bazkaria prestatu eta zerbitzatu gurasoen laguntza beharko dutela jakinarazi dute.

Festetan artisten lanak ikusgai jartzeko bilera

ANOETA » Herriko festetan, herriko artisten lanak eta eskulanetako ikastaroan egindakoak ikusgai jarri nahi dituzte. Erakusketan parte hartzea eskertuko lukete antolatzailleek eta horretarako bilera antolatu dute maiatzaren 4ean, 17:15ean udaletxean.

KANTXATIK

Pilotazale, eman hauspoa etorkizuneko pilotariet.

Egin harpidedun!

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren euskarazko aldizkarian

Deitu telefonoz: **943-47 14 63**

Idatzi helbide elektroniko honetara: kantxatik@gmail.com

- Sebas Martinez, Trinketeko hautatzailea.
- Iritzia.
- UROLA KOSTA BEREZIA:**
- Zestoa Pilota Eskola.
- Elkarriketa: Patxi Azkargorta.
- Posterra: Zestoako haurrak.
- Emakumeak pilotari.
- Erremontea Azpeitiko eskolan.

berria

Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak
hautatzeko probarako deialdia

PROBAKO EGUNAK ETA TOKIAK

GIPUZKOAN

EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkean.
ORDUA: arratsaldeko 16:00etan.

BIZKAIAN

EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: EHUren Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko aularioan, 1.1 gelan.
ORDUA: eguerdiko 12:00etan.

ARABAN

EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: BERRIaren Gasteizko egoitzan: Bizenta Mogel 6, behea.
ORDUA: goizeko 09:30ean.

NAFARROAN

EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: BERRIaren Iruñeko egoitzan: Iratxeko monasterioa, 45. eskuineko eskailera, 13. ezkerre.
ORDUA: goizeko 10:00etan.

Probara curriculuma ekarri behar da



Elduainen pilotalekua eta futbol zelaia konpontzeko asmoa dute jasotako laguntzarekin. E. EZEIZA

Bidegoian eta Elduainen pilotalekua hobetuko dute

Azpiegiturak » Bi herri hauetan, Landagipuzkoa 32 programaren laguntzaz, kirol azpiegiturak berritzeko asmoa dute.

ERREDAKZIOA

Bidegoianen eta Elduainen balio anitzeko azpiegiturak, kirol izae-rakoak berrituko dituzte. Horretarako, 400.000 euroko inbertsioa egitea onartu du Diputatuaren Kontseiluak, Landagipuzkoa 32 programaren barruan.

Etorlur Gipuzkoako Lurrak prestatuko ditu udalerrri hauetako bakoitzaren inbertsio planak eta berak gauzatuko ditu plan horietan aurreikusitako inbertsioak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak

4.408.000 euro inbertitu ditu guztira Landagipuzkoa 32 programaren barruan eskualdeko Abaltzisketa, Baliarrain, Gaztelu, Aduna, Aizarnazabal, Albiztur, Amezqueta, Hernalde (bi proiektu), Larraul, Belauntza, Bidegoian eta Elduaingo balio anitzeko azpiegiturretara xedatutako udalen inbertsio planetan.

Elduainen, kirol azpiegiturak hobetzea helburu

Elduaingo proiektuen helburua herriko bi kirol azpiegiturretan hobekuntza lanak egitea da. Plazako pilotalekua eta futbol zelaia konpontzea da asmoa eta honen aurrekontua 50.748,71 eurotako da. Horietatik 50.000 euro Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko ditu eta bainerako, hau da, 748,71 euro,

herriko Udalak. Bai frontoia bai futbol zelaia gauza askotarako erabiltzen dituzte elduaindarrek, aisialdirako eta ekitaldi asko antolatzeko. Horregatik, Udalak oso beharrezkotzat dauka instalazio horiek eraberritzea, herriko kirol jarduerak eta soziokulturalak egin ahal izateko berme baitira.

Bidegoianen, pilotalekua berrituko dute

Landagipuzkoa 32 programaren barruan Gipuzkoako Foru Aldundiak hautatutako inbertsioetako bat Goiatz frontoia berritzapena deritzan azpiegitura da.

Aipatu inbertsioen kostu osoa 351.948,26 eurotako da, baina horietatik 350.000 euro Foru Aldundiak jarriko ditu eta gainerakoak Bidegoiango Udalak.



Bidegoianen, Goiatz auzoan kokatuta dagoen pilotalekua berrituko dute. E. EZEIZA

Hilberria

KARMEN JAUREGI ZURUTUZA

(Manuel Iztuetaren alarguna)

Atzo hil zen, 90 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Seme-alabak: Juan M^o eta M^o Karmen Arakama, M^o Karmen eta Martin Lizarazu; bilobak: Haritz Iztueta eta Amaia Etxeberria, Andoitz Iztueta eta Ainarra Etxenautia, Oier Lizarazu eta Arantza Insausti, Aimar Lizarazu eta Irati Etxeberria; birlobak: Eneiz eta Nora Iztueta; ezkon ahizpa: Maritxu Jauregi (Martin Jauregiaren alarguna); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan gorpua aurrean dela egingo den hiletara. Eskerrik asko guztioi alde zuretik.

Helbidea: Goierri 6, 1.C

Oharra: gorpua Beasaingo Goierri Beilatokian egongo da.



ORDIZIA
2010eko apirilaren 29a



Koldo Alonso laugarren geratu zen, tartean erorketa bat izan arren. HITZA

Alonso laugarren Albaceteko proban

Ibarra » Michelin Power Cup txapelketako bigarren lasterketa korritu du asteburuan Ibarra Racing-eko moto gidariak.

ERREDAKZIOA

Oraingoan ere, Ibarra Racingeko Koldo Alonsok ez du zorte handiegirik izan Albaceteko La Torrecija zirkuituan. Bertan jokatu zen Michelin Power Cup Txapelketako bigarren lasterketa.

Aurretik antzeman bezala, ibar-tarrarentzat lasterketa gogorra izan zen asteburukoa. Antolakuntza akats batengatik, entrenamendu libreak galdu zituzten Series 600 eta Supersport mailan lehia-tzen ziren gidariak.

Gurpilen egoera onak lagunduta, laugarren postua lortu zuen Alonsok. Bere esanetan, «oso nahasia izan zen aurreneko saiakerara». Bigarren kronometratuan berriz, eguerdiko beroak gurpilen iraupena bermatu zuen, denbora azkarra lortzeko aukerak murriztuz. Tartean, erorketa bat izan arren, bukaeran lasterketako 11. postua lortu zuen Koldo Alonsok, eta 4.a Series 600 mailan. Txapelketako sailkapen nagusirako puntu gehiegirik galdu gabe, nahiz eta orain 3. postura jaitsi den aurrean duen gidaririk hiru puntutara geraturaz.

Bigarren sailkatuarekiko alde murrizteko hurrengo aukera maiatzaren 15ean izango du Cheseteko (Valentzia) Ricardo Tomo zirkuituan.

Laburrak

Udalak Ohiko Osoko Bilkura deitu du biharko

LEITZA • Leitzako Udalbatzak Ohiko Osoko Bilkura egingo du bihar arratsaldean. 21:00etan izango da hau, udaltxeko Batzar Aretoan. Bertan, besteak beste, ondorengo gaiak jorratuko dituzte: Toki Inbertsioen Planaren barnean obra bat sartzeko eskaera, 2010. urteko aurrekontuaren 4. eta 5. aldaketa; Jubilatuek elkarteak aurkeztutako mozioa; eta Mandoegiko parke eolikoa.

Atanoko partidak ikustera autobusez joateko aukera

ALBIZTUR • Gipuzkoako herriarteko pilota txapelketaren baitan, Albizturrek Donostiaren kontra jokatu du hurrengo kanporaketa. Asteburu honetan, eskualdean bertan izango dira partidak, baina hurrengoan Donostiako Atano pilotalekuan izango dira. Hori dela eta, Udalak autobusa antolatuko du. Interesatuak udaletxean eman dezakete izena maiatzaren 5a bitartean, bost euroren truke.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

E Elkarrizketa

MIKEL TELLERIA › Artista



HITZA

«Lan honekin artearen egungo egoeraz gogoeta eragin nahi dut»

Kultura › Artista tolosarraren 'Des' izeneko lana hiru astez egongo da ikusgai Kale Nagusian; ikusten dutenei zer pentsatua eman nahi die.

INIGO TERRADILLOS

GKo Galeriak erakusketa berria zabaldu du. Edo, agian, itxi esan beharko genuke, horretan baitatza Mikel Telleriaren (Tolosa, 1972) ekimenak. *Des* izenburupean, Kale Nagusian kokaturiko galeria adreiluzko horma batekin itxi du, bertatik igarotzen direnengan gogoeta eragiteko helburuz. «Gogoeta arteak gaur egun duen lekuaz, beharraz, interesaz...». Erakusketarekin batera, hitzaldiak eta mahai inguruak ere egingo ditu gaiaren inguruan.

Egunotan Kale Nagusitik igarotzen diren Gko galeria zegoen lekuan horma bat topatu dute.

Nire erakusketaren ideia izan da, iraungo duen hiru asteetan akzio bat sortu nahi bainuen. Jendea zer pentsatua eman nahi diot. Herriarrak galeriatik pasatzean euren buruari galderak egitea nahiko nuke. Zergatik itxi den galeria, esaterako. Izan ere, galeria debatea edo eztabaida sortzeko estali dut. Zein da artearen eta gizartearekiko harremana? Eguno egoera so-

zioekonomikoan zein da artearen eginkizuna? Eguno egoerak aldatzeko aukera emango al du? Aldaketa horretan artistek eragina izan al dezakete? Arteak arazoak konpondu edo sortu egin behar ditu? Arteak liberatu behar al du eta goi mailakoentzat soilik izateari utzi? Kapitala artearen minbizia al da? Arteak interesa pizten al du jendearengan? Edota artearen

«Bertatik igarotzen diren beren buruari galeria zergatik itxi duten galdetzea nahiko nuke»

merkatuak sortzen du interesa? Zein da artearen eta erakundeen arteko erlazioa? Artista benetan independentea al da? Artearen merkata aldaketa handi baterako prestatu dago? Eta artista? Komunikabideetan Gobernuak krisiaren aurrean hartzen dituen neurriez behin eta berriz entzuten dugu. Eta artearen inguruan zer egingo da? Orain arte bezala jarraituko

du? Eztabaida hori sortu nahi dut, guztiengan, herritar, galeria, museo, erakunde edota agintarien artean. Nire lanaz gain, hau da, horiarekin galeria ixteaz gain, gogoeta sortzeko beste hainbat bide ere egongo dira ekimenak iraungo duen hiru asteetan, izan ere, hitzaldiak eta mahai inguruak egingo ditugu hainbat artisten laguntzarekin.

Nondik sortu zen ideia berezi hau?

Duela urtebete galeriatik pasa nintzen, eta nere lanari buruz hasi ginen hitz egiten. Atzerrian hainbat erakusketa jarriak ditudala, baina hemen ez dudala nire lana erakutsi oraindik azaldu nien, eta orduan aukera eman zidaten euren galerian erakusketa jartzeko. Nire lana ezagutzen zuten, eta hori kontuan hartuta, Gko Galerian jarriko nuen erakusketa ere bide beretik joango zela uste zuten, hau da, pintura edota argazki erakusketa izango zelakoan zeuden.

Baina, zure proposamena guztiz bestelakoa izan zen.

Nire proposamenarekin joan nintzen eurengana, eta azaldu nien zerbait berezia izango zela, eta ez nuela ez margorik, ez argazkirik eta eskulturarik erabiliko erakusketarako. Eguno egoeraz artea-

ren merkatuaren inguruan auto-kritika egin nahi nuela esan nien, eta horretarako zerbait hauslea edota arraro xamarra egingo nuela. Beraiek edozer gauzetarako irekiak zeudela esan zidaten. Orduan, zehatz mehatz azaldu nien nire ideia, eta hasiera batean harrituraz hartu bazuten ere, ulertu zuten ideia, eta aurrera egin genuen. Uste dut ausartak beraiek izan direla nire lana egiten uzteagatik.

Eta lehen impresioak jaso dituzue dagoeneko.

Iragan ostiralean horma eraikitzen ari ginelarik, ikusmin handia sortu zuen egiten ari ginenak, eta jende askok galdetu zuen zertan ari ginen. Esaterako, adineko jendea gerturatu zitzaigun galeria zergatik itxen ari ginen galdetzeraz, eta nik nire helburua arteaz eztabaida sortzea zela erantzun nien. Oso interesgarria zela egiten ari ginen esan zidaten. Niretzat oso handia izan zen hori. Horrelako erreakzioak sortzen baditugu, zozor lortu dugula esan daiteke.

'Des' erakusketaren izena nondik dator?

Izen hori *desegin*-ekin lotzen dut. Nolabait, orain arte izan dugun jenera kontsumista hori desegin edo aldatu beharko genukeela dago horren atzean.

Zure ustez, arteak zein leku izan beharko luke gaur egungo gizartearen?

Hain zuzen ere, horregatik luza-tzen dut galdera hori eztabaidarako, ez dakidalako erantzuna. Dena den, badakit egun dagoen bezala ez dagoela ondo. Horregatik ere, esan daiteke itxi dudala galeria, arteak bertan hartzen duelako merkataren itxura edo esanahia. Artista eta eroslearen unea, salmentaren una irudikatzen dutelako maiz galeriek.

Norantz doa edo joan beharko luke arteak?

Aldaketa beharko luke, baina ez dakitegongo den. Ezagun edota famatu diren artistek baino ez dute saltzen. Besteek ezin dute ia arteaz bizi. Merkatuak artista zehatz batzuk bilatzen ditu, eta komunika-

«Artea edota artearen merkata den interesa pizten duena galdetzen diot neure buruari»

bideek salmenta handiak hartzen dituzte kontuan euren titularretan koadro batengatik dirutza ordaindu dela jartzeko. Artea merkatu bezala ikusia dago, eta horregatik galdetzen diot neure buruari eta gizarteari ea artea interesgarria den edota merkata den benetako interesa pizten duena.

Zergatik izan beharko luke interesgarria arteak?

Uste dut artea ez dagoela hurbil gizartearekiko. Egiten diren planteamenduak askotan nahiko zailak izaten dira. Hori mailaz igotzeko egin ohi da, eta horrekin gizartearengandik urruntzea baino ez da lortzen. Jendearengan somatzen dut hori, arte modernoaren arrazoiak dute, eta ez dute ulertzen. Beraz, ez ulertze horrek horma bat sortzen du, eta horrek artearekiko interesa ez izatea sortzen dugu, ez baita kaleko jendearengana iristen.

Zelan mota egiten dituzte?

Gehienak Euskal Herriko kanpo egin ditut. Estatu Batuetan, esaterako, New Yorken edota San Frantziskon jarri ditut nire lanak, eta baita Korean ere. Ni ez naiz argazkilaria ez eta margolaria ere. Nagoen unearen arabera lan bat edo beste lantzen dut. Orain Tolosan egin dudana antzeko bat ere egin berri dut Madrilen, artea eta prekaritatearen inguruan, hain zuzen. Lehiaketa alternatibo bat da, eta garrantzia du, besteak beste, Reina Sofia museoak ere laguntzen duelako. 6 euroko aurrekontua duen proiektu bat aurkeztu behar zen, eta nirea aukeratu zuten. Pasa den astetik daukat bertan erakusgai. Merkatuarekiko kritika egiten du, nolabait merkatuaren irudi diren erosketa gurdiak erabiliz. Eraskiko sei gurdi hartu nituen, erakusketa osatu eta hemendik hilabete batera berriro bueltatuko ditut, sei euroak errekupeparatu eta galeriakoei itzuliko dizkiet.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizalzeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari


'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Arrakasta itzela izan du XI. HITZA Argazki Lehiaketak eta beraz, argazki guztiak paperean argitaratu ahal izateko zortzi finalisten publikazio data atzeratuko dugu. Argazki finalistak maiatzaren 9an argitaratuko ditugu, eta harpidedunek maiatzaren 10tik 14ra bozkatu ahal izango dute. Hala eta guztiz ere, argazkiak bidaltzeko epea atzo bukatu zen.

Eskerrik asko parte hartzeagatik!



TOLOSA • Alberto Letamendi Pirineotako Murillo de Gallegora rafting-egitera joan zen Aste Santuan. «Paisaia zoragarria da», esan du. ALBERTO LETAMENDI



IKAZTEGIETA • Luis Mari Saez de Egilazek argazki hau bidali du: «Iratiko basoan eta inguruetan leku zoragarriak ikus daitezke. Argazkian Harpeako haitzuloaren ondoko borda ikusi daiteke». LUIS MARI SAEZ DE EGILAZ



IKAZTEGIETA • Koldo Saez de Egilazek argazki hau bidali du: «Auza-Gazteluko lepotik Aizkorri. Egun ederrak egin ditu inguruko parajeak bisitatzeko». KOLDO SAEZ DE EGILAZ

A Agenda

Hitzaldiak

- **Tolosa.** *La guerra de la independencia a través del General Álava* hitzaldia gaztelaniaz Kultur Etxean 19:30ean.
- **Tolosa.** Nikaraguako iraultza sandinistaren inguruko hitzaldia gaztelaniaz Engels Ateneoan 19:30ean, Euskal Herria Sozialistak antolatutako Aste Iraultzailearen baitan.

Zinema

- **Tolosa.** *Un profeta* Leidor areto-

an 19:15ean eta 21:45ean, zine-fo-rumean, jatorrizko bertsioan.

Antzerkia

- **Zizurkil.** Pello Mari Otaño ikas-tetxeko ikasleek *Hiru txerikumeak* eta *Amona Benidomen* antzezla-nak eskainiko dituzte Atxulondo kultur etxean 11:00etan VIII. Ant-zerki Astearren baitan.

Deialdia

- **Tolosa.** Asis Sarearen otoi-zaldi bilkura Santa Klara komentuan

19:30ean. Helburua jendearengana irekitzea da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Zorionak!

Ekain Goikoetxea (Tolosa). Gaur 6 urte. Muxu asko familiaren partetik!!

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...